



2011ko agorrilaren/août 27an
Lizarrietan - Sara/Sare
www.usopop.com

Usopop elkarteak antolaturik :

Usopop Festibala#2



**USO
POP**
FESTIBALA #2

7 etatik goiti / à partir de 19h

// **FRANÇOIS AND THE
ATLAS MOUNTAINS**
(Pop - Saintes)

// **THE SUICIDE OF
WESTERN CULTURE**
(Elektro - Bartzelona)

// **MARS RED SKY**
(Rock Stoner - Bordeaux)

// **MOBYDICK**
(Folk - Getxo)

// **MURSEGO**
(Experimental - Eibar)

AGORRILAK 27 AOUT 2011
SARA/SARE - LIZARRIETA

+ CinDJrella VS SPT

ENTRÉE- SARTZEA: 9 €
Jatekoa bertan / Restauration sur place • Info: info@usopop.com - 06 70 07 76 56



SAR HITZA:

Usopop proiektua 2010 urtean sortu da Saran, 2 zutabe nagusi hartuz oinarritzat.

Bata, sarako ondarea, batez ere naturala, goraipatzea eta bestea, Euskal Herriko eta kanpoko ' inde ' deitzen dugun eszena musikalak elkartzea eta ezagut araztera.

Musika proiektuaren motore bada, ez da gazteei zuzendutako bertze kontzertu soil bat.


Egun horretan belaunaldi desberdinak talka eginen dute eta gauz ainitzetaz gozatzen ahalko dira : ez ohizko leku bat, **proiektzioak, haurrentzako animazioak, apainketa bereziak, janari goxoa...** Hori dena **naturaren errespetuan** (komun idorrak, sakeletako hautsuntziak, basoberriak ...)

Lehen edizioak haren ikuslegoa aurkitu zuen **400 pertsona** hurbildu zirelako lizarrietako patarretara. Jendea **Euskal Herri** osotik baina baita ere **Bordale edo Pauetik** etorri zen pario hortan parte hartzera.

Ondotik **Otsailean Kontrapasa gaualdia** antolatu zen Lurberri gelan eta azkenik **Santa Katalina kaperan Evening Hymns** kanadiarren kontzertua egin zen. Ikuslegoa eta artistengandik ohar onak jaso eta gero, **2. USOPOP festibala** aurkezten dizuegu.

2011ko agorrilaren 27an iraganen da Lizarrietako lepoan.

USOPOP (menditarra) MOÏ MOÏ elkarteak sortu duen **BALEAPOP (itsasokoa)** festibalarekin elkartuak gira. **Burua** zuhaitzetan zangoak itsasoan.



USOPOP FESTIBALA #2 / 27 Aout 2011 SARE / COL DE LIZARRIETA

2.edizio honentzat lehenean idekitako bideak arakatzen segituko dugu.

Gaualdia, **arratseko 6tan** hasiko da **haurrentzako animazioarekin**. **Xan Errotabehere** ipuin kondalariak lagundurik, **Lizarrietako oihanean ibilaldi bat** egingen da. **Kontzertu gunea arratseko 7tan** idekiko da.

Bertan, **apainketa** berezi, **janari** eta **edari** goxo eta **kontzertuez** gozatzeko aukera izanen da.

Programazioa

Francois and the Atlas Mountains // Mobydick // Mursego //

Mars Red Sky // The Suicide of Western Culture //

Dantza Arantxa Lanneskin // Spt vs cindjrella



FRANCOIS AND THE ATLAS MOUNTAINS (Pop /Saintes)



www.myspace.com/francoisinbristol // [VIDEO 1](#) // [VIDEO 2](#)

Saintes hirikoa da Francois, bainan Inglaterrako Bristolen garatu da artista bezala 2003 urtetik goiti. 2004 eta 2005. urteetan 'les anciennes falaises' eta 'the people to forget' diska laburrak argitaratzen ditu.

2008. urtean Charente Maritime eskualdera sartzen da 'Plaine Inondable' diska luzea grabatzera. 'Bost gehio' Euskal Herriko polifoni taldea ezagutzen du eta haren musikari beste sakontasun bat emaiten. Entzulegoak eta prentsa berezituak harrera arras ona egiten dute diskari.

Aldi honetan, Francois eta bere 3 adixkideak Udazkenean aterako duten 2. lan luzea aurkeztera datoz. Itzaropena haundia da Domino Records disketxe ospetsuarekin (franz ferdinand , artic monckey, ...) izenpetu duen taldearekiko. Laukoteak pop tribalari elektronika ikutuak txertatzen dizkio zuzeneko ezin dantzarriagoak sortuz.



MOBYDICK (Bilbao /Folk)



www.myspace.com/mobydicklove // [VIDEO](#)

Izen honen gibelean Eneko Burzako getxotarra aurkitzen da.
Hainbat taldeetan parte hartu eta gero , 2009. urtean
bakarkako ibilbidea abiatu du 'And she become god's friend '
disca argitaratuz.

Hego Euskal Herrian hainbat kontzertu eman ditu eta espaniar
estatu mailan ere ibiltzen hasia da. Lehen aldikotz ipar
Euskal Herrian arituko da Eddie Vedder bizkaitarra.

Sentimenduz beteriko zuzenekoak eskaintzen ditu haren ahotsa
sakonaz eta gitarraz lagundurik.

MURSEGO (Eibar / Expérimental)



www.myspace.com/mursego // [VIDEO 1](#) // [VIDEO 2](#)

Anari, Lisabö edo Gora Japon taldeekin ikusia duzue behar bada Maite Arrotajauregi Eibartarra. Mursego (saguzahar portugesez) haren proiektua da. Loop sistema abil baten bidez, ahotsak, ukulele, perkusioak ala hurreentzako tresnak grabatzen ditu soinu katedral harrigarri bat sortuz.

Haatik, proiektu honen oinarria biolocelloa da. Maitek bat egiten du haren musika tresnarekin. Mikel Laboa bezala, esperimentazioak, graziaz beteriko momentu batzuetara eramaiten gaitu.

2010. Urtean (BI) haren bigarren lana argitaratu du eta kritika oso baikorrak jaso.

Kontzertu harrigarriak eskaintzen ditu entzulegoa melankoliatik euforiara pasa araziz.

MARS RED SKY (Bordeaux /Rock Stoner)



www.myspace.com/marsredsky // [VIDEO](#)

Frantses stoner eszenako ordezkari hoberena dugu bordaleko hirukotea. Haien musikaren erroak 70 hamarkadako Black Sabbath edo Led Zeppelin taldeetan bada, gaur egungo Dead Meadow ala Witch bezalako belaunaldi berriko taldeetan oinarritzen direla erran dezakegu.

Sekzio erritmiko indartsu eta aberatsa dute, gitarra zorrotza eta beste taldeengandik hainbeste desberdintzen duen elementua : julien Prasen ahotsa.

Musika astun honi goxotasuna txertatzen dio. Stoner estiloko talde aunitz bezala , haien musikak basamortuzko paisaiak gogora etor arazten dizkigu eta ez da harritzekoa haien klipa Bardeetan grabatu izana..

THE SUICIDE OF WESTERN CULTURE (Elektro / Bartzelona)



www.myspace.com/thesuicideofwesternculture // VIDEO

Elektronika eszenako azken sentsazioa dugu TSOWC. Bartzelonako taldea Primavera sound edo Sonar bezalako festibaletan arituta da sorpresa eraginez.

Horren ondorioz Animal collectiventzat idekiko dute. Haien musika, elektronika (m83, fuck buttons) bezain post-rock (godspeed you black emperor, tortoise...) eszena musikaletatik elikatzen da. Sarara irudizko ikusgarri batekin datoz zuen hipnotisatzera

SPT V.S Cindjrella

Sanpantzarrek Cindjrella gaueko erregina desafiatuko du dantzalekua sutan ezarri nahian. Zuei izanen da bien arteko lehia epaitzea...

DANTZA EMANALDIA:

Bi kontzertuen artean Arantxa Lannes uztariztar gazteak Usopopentzako pentsatutako dantza pieza bat eskainiko digu. Okzitaniako Tolosan dantza ikasketak bukatzen ditu arte plastikoetan lizentziaduna den neskak. Benadinen musika originalaren gainean dantza garaikidea proposatuko digu.



XEHETASUNAK

AGORRILAREN 27AN /SARA/ LIZARRIETAKO LEPOA
7 ETATIK GOITI
SARTZEA : 9 EURO
JATEKO BERTAN

XEHETASUNAK info@usopop.com / 06.10.75.21.71

INTERNET: www.usopop.com

FACEBOOK: <http://www.facebook.com/#!/pages/Usopop-Festibala/124197750977736>

KONTAKTUAK

USOPOP elkartea

Bola bidea

64 310 SARA/SARE

info@usopop.com

Joanes GARCIA BASURKO / 06.70.07.76.56

basajaunes2002@yahoo.fr

François MATON / 06.61.47.33.39

francisco@usopop.com

Patxi DUTOURNIER / 06.10.75.21.71

patxi@usopop.com



LAGUNTZAILE

